

TOKIKOM

2018ko maiatza | 181. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria

Ainhoa Larrabe

Historiagile
kazetaria

Iholdi Beristain Sondikako Jaiak Herri Galdeketa Mamagigi's



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____


Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi baten gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOPIKAN TXORERIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatuko ditu. Kontrolatze esaterik ez dagoen bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Geroztik, edozein momentutan datuak erabazte, baliogaberi eta zuzendu alferriko dituzu. Honetarako, helbide honetara jo behar duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Gorka Zallo, marmolaria
-  **12** Gurean izan da... Iholdi Beristain, *Go!azen*
-  **14** Gaztea eta... Izan García, *rider-a*
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Ainhoa Larrabe, kazetaria
-  **22** Sondikako jaiak
-  **26** M6: Herri galdeketa Lezaman eta Zamudion
-  **28** Txartel bakarra; benetako integrazioa
-  **30** Gure musika... Mamagigi's taldea
-  **32** Nekazamudio azoka
-  **34** Aikorrizketa... Albisteetako gezurra eta egia
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Iholdi Beristain, *Go!azen* telesaileko aktorea



22 Sondikako jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Inés Serrano, Juanjo Ortiz, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Jakintza filosofikoa = Praktika filosofikoa

Gezurra ematen du, ezta? Gaur egun orokorra da pentsatzea filosofiarekin lotuta dagoen edozein gai edo arlo auzi teoriko hutsa dela, ariketa arrazionalaren bidez argumentu sakon baten destilazioa, brillantea akaso, baina arraro bezain ulergaitza. Galdetu bestela hezkuntza ertainetako edozein ikasleri.

Ohitu gara pentsatzen zenbat eta teoria sakon eta ilunagoak ezagutu, orduan eta jakintzuagoak izango garela, eta halakoxe ikusiko gaituztela besteek, jakintsu. Eta gu harro. Baina tamalez, ez gara ohartzen gehienetan gure berbak gure katamaloa bilakatzen direla, gure burua eta besteekiko ezjakintasuna ostentzeko armarri sendoa. Eta irizpide potoloa besapean mugitzen gara munduan zehar.

Idea horrek ez du, inondik ere, bat egiten jatorrizko filosofiarekin. Izan ere, gure mendebaldeko kulturean, baita ekialdeko beste kulturetan ere, filosofoek ez zituzten inoiz teoria eta praktika berezitu.

Jakintza teorikoa landu egiten zen, eta gizakiak bere burua eta ingurua ezagutzeko zen helburua. Jakitea sentitzea zen, esperimendatzea. Zalentza erabiltzen zuten, eta zalentzaren bidez, ezagutza argia bilatzen zuten. Sokrates da horren adibide garbia. Gai baten inguruan zailtzion etengabe, ideiak argituz, egia lortu arte.

Bilatutako ezagutzak filosofoari identitate eskaintzen zion, nortasuna, eta horrekin batera mundua deskribatzeko ikuskera bat, argia, erabilgarria eta, batez ere, egiazkoa. Armarri gabekoa.

Zalentza eta ikerketan oinarritzen den modu hori gero eta gehiago zabalitzen ari da gure inguruan ere. Erabili ezker, gure ideiak, sinesmenak eta jokabideak aztertzen ikasi ahal dugu, eta gure burua ezagutu, gure galdera pro-



INES SERRANO
Filosofian lizentziaduna

pioak egin, gure pentsamoldea orraztu, eta mundua eta ingurua begiratzeko eta bizitzeko geure ikuspegia landu.

Denok gara filosofoak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Kontua gure pentsaeraz ohartzea da, eztabaidatzen dugunean, hausnartzen dugunean, gure jarrerak behatzen ditugunean, besteek zer islatzen diguten ikusten dugunean... Horrela aurkituko dugu gure egiazko izaera. Eta egiazko jakinduria.

Filosofia ez bada praktikoa, ez da filosofia.

Gaur egungo eztabaidarik nagusia hiritarren artean eta baita komunikabideetan justiziaren inguruko legei eta epaileei buruzkoak dira. Adibiderik nabarmenak, Altsasuko gazteen epaiketa eta baita "la manada" deritzonaren sententziak eragindako harridura. Ez naiz murgilduko kasu horietan, nire hausnarketa orokorragoa izatea nahi dudalako. Argi dago, pertsona bakoitzak, bere "modura" ikusten dituela gizartearen gertatzen diren eztabaidak, horien artean justizia bera.

Arazoa larria da, epaile batek lege bat modu batera interpretatzen due-

Newtonen legea vs Epaileen legea



JON LEGARRETA
Fisika Zientzietan doktorea

nean eta beste batek beste modu batera. Ondorioa argia da: kontrajarritako sententziak errealitate berdin baten zat. Aldiz, Newtonen grabitate legea ez da interpretagarria, ez da demokratikoa (hau da, ezin da bozkatu) eta edozein epailek argi dauka berak idatzitako edozein sententzia leiho batekin bota ezker lurrerantz jausiko dela beti eta inoiz ere ez gorantz. Gizakiak ezin du zientzia aldatu, soilik ulertu eta aplikatu, aldiz "justizia" zenbait gizakiren menpe dago soilik. Kezkagarria.



Iaz, 550 pertsonak baino gehiagok topatu zuten lana EGAZ Txorierriren bidez



Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen Enplegu eta Sustapen Ekonomiko Zerbitzutik, EGAZ Txorierritik, jakinarazi duten moduan, iaz 554 lagunek topatu zuten lana zerbitzu horren bidez. Horieta, 495ek besteren kontura aurkitu zuten lana; eta 59k autoenpleguaren bidez. Kontratazioen % 16 mugagabeak eta lanaldi osoak izan ziren.

2017an, guztira 370 enpresak jo zuten EGAZ Txorierriera, aurreko urtean baino % 24,16 gehiago, eta 1.360 lanpostu eskaini ziren. Enpresek, besteak beste, profil hauek eskatu zituzten: teknikariak eta profesional zientifiko eta intelektualak (% 21), eskulangileak eta manufaktura-industrietako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (% 17), laguntzaileak (% 17), administrariak (% 14), oinarritzko langileak

(% 12) eta zerbitzuetako langileak (% 12). Enpresak izan ziren nagusiki merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorekoak (% 26,03), manufaktura-industriakoak (% 24,61) eta adar profesional eta zientifikokoak (% 13,15). Gainontzekoak administrazioakoak (% 6,5), hezkuntzakoak (% 6,5), garraioaren eta salgaien sektorekoak (% 6,22) eta eraikuntzaren sektorekoak (% 5,94) izan ziren.

EGAZ Txorierritik esandakoaren arabera, eskualdean % 8ko langabezia-tasa zegoen 2017. urtearen bukaeran, eta zifra hori 2016ko baino 0,68 puntu hobea da. Gainera, Txorierriko langabezia-tasa Bizkaikoa eta Euskadikoa baino txikiagoa da. Eustaten datuen arabera, tasa horiek % 13,07koa eta % 11,90koa ziren, hurrenez hurren, 2017ko abenduan.

Hitzordua xakearekin

Derioko Xake Taldeak "San Isidro" Nazioarteko Txapelketa antolatu du 20. aldiz, ekainaren 2rako. Txapelketa garrantzitsua da xake zaleen egutegian, eta Derion Euskal Herriko eta Estatuko xakelariak ez ezik nazio artekoak ere batzen dira bertan.

Txapelketa 9:00etatik 14:30etara izango da Kultur Birikan, eta joko sistema suitzarra erabiliko da, zazpi errondatar. Aurreko edizioetan moduan, antolatzaileek 27 sari emango dituzte eta orotara 1.805 euro banatuko dituzte saritan. Txapeldunak 400 euro eta txapela jasoko ditu; bigarrenak, 250 euro; eta hirugarrenak, 200 euro. Bestetik, 18 eta 14 urtetik beherako onenek garaikurra jasoko dute saritzat.

Izena emateak 10 euro balio du eta doakoa da Elo fide>2300 kategoriaren barruan daudenentzat. Izena emateko azken eguna ekainaren 1a izango da eta hori 22:00ak arte egin ahalko da www.derioxaketaldea.wordpress.com webgunearen bidez, derioxaketaldea@gmail.com helbide elektronikorik mezu bidalita, edo 688688183 telefono zenbakira whatsapp bidalita. Izen-abizenak, NAN zenbakia eta adina jakinarazi behar dira izena emateko orduan. Dirua kontu korronte honetan sartu behar da: ES32 2095 0126 2091 0107 4776 (Kutxabank). Bestetik, izena ematea txapelketaren egunean bertan ere egin daiteke 8:30ak baino lehenago, lekuri baldin badago.



AmAr
ileapaindegia

Astearte ostiralek:
9:00-19:00
Laburuntz:
8:00-13:30

Unbe plaza, 1 beheko
Zamudio
94 4520419

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolaniza, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Alaia
Fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzuak
Berteko produktuek

Taldea, 1
48170 Zamudio
94 452 08 25

Loiuko Paella Txapelketa, ekainaren 30ean

Txapelketa 15. aldiz egingo da. Betiko moduan, parte-hartzaileak liburutegi eta medikuaren kontsultategi atzean dagoen zelaian ibiliko dira paellak prestatzen, 09:00etatik aurrera. Iaz, 80 kuadrillak hartu zuten parte lehiaketan; ia 1.000 lagunek hain zuzen ere.

Azken urteetan, parte-hartzaileen kopurua gero eta txikiagoa zen eta horri buelta emateko, antolatzaileek erabaki batzuk hartu zituzten duela urte bi. No-bedade horiek aurtengo edizioan ere jarriko dira martxan. Batetik, izena emateko kuota nabarmen murriztu zuten; lehen 70 eurokoa zen eta, gaur egun, 40 euro ordaindu beharko du lehiakide bakoitzak. Horren truke, lekua eta toldoa eskainiko dituzte antolatzaileek. Bestetik, lehenengo lau sailkatuek dirua jasoko dute sariatzat; hurrengo zortziek, opariak.

Txapelketaren oinarriak hauexek dira: lehiakide bakoitzak paella bakar bat aurkeztu beharko du 13:30etatik 14:30era bitartean, eta landan bertan egin behar-



ko du. Parte-hartzaile bakoitzak osagaiak eta arroz mota aukeratu ahal izango ditu. Sariak egun berean, 17:30ean, banatuko dira. Irabazleak 250 euro, txapela eta

urrezko garaikurra jasoko ditu; bigarrenak, 200 euro eta zilarrezko garaikurra; hirugarrenak, 150 euro eta brontzezko garaikurra; eta laugarrenak, 100 euro.

Aragua jatetxea, "Sondika Pintxotan" lehiaketaren irabazlea



Txapelketa bigarren aldiz antolatu du Udalak, eta bertan bederatzi tabernek hartu dute parte. Parte-hartzaileak hiru kategoriatan lehiatu ziren: okelezko pintxoa, arrainezko pintxoa eta estilo librea. Kategoriatan bakoitzeko 3.500 pintxo baino gehiago saldu ziren. Aragua jatetxea lehiaketaren bigarren edizioaren txapelduna izan da kategoriatan guztietan eta sailkapen orokorrean.

"Txapelketa erabat arrakastatsua izan da, bai publikoaren aldetik, bai parte-hartzaileen aldetik", esan digute antolatzaileek. "Gero eta maila handiagoa dago. Eta gero eta kalitate handiagoa ere. Izan ere, pintxoak egiteko orduan, ostalariek gero eta imajinario handiagoa erabiltzen dute eta osagaien kalitatea ere zaintzen dute. Oso giro ona eta oso pintxo goxoak egon dira".

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiraleraino
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larazkenetan
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltzerotza orokorra

Especializazioa:
Xafla-lanak
Zoruak

944522910 - 665763912 - 652772016

GOXO-GOXO LOHIZUN

Astretzelaren zabalak
Olla egutero
Prestak eskergaz

Garaizua, 77a
48190 Lazema
94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com

San Joan sua

a: Juanjo Ortiz

Ohiturari eutsiz, ekainaren 23an San Joan gaua ospatuko dugu Txorie-rrin. Maiatzeko alea itxi orduko, Loiu, Derion, Zamudio eta Lezaman zer antolatuko den jakin izan dugu. Lezaman egun osoko jaia egingo dute aurten eta, besteak beste, euskara, kultura, berdintasuna, kirola eta herritarren arteko harremanak uztartuko dituzte. Jai herrikoia eta parte-hartzailea izatea nahi dute eta, horretarako, herriko elkarteek eta Udalak egitarau oparoa antolatu dute. Goizean mendi ibilbidea egingo da eta, herri bazkariaren ostean, gazteei eta helduei zuzendutako herri kirolak egongo dira, antzerki saioak, dantzak, kantak, sua

eta erromeria. Ekintzak frontoi atzeko landan eta aparkalekuan izango dira.

Bestetik, Loiu arratsaldeko 8etatik aurrera ekingo diete ospakizunei. Txokolatada egongo da eta Deabru beltzak taldeak emanaldia eskainiko du 21:30ean. Sua 22:30ean piztuko dute eta Dj batek musika ipiniko dio gauari. Derion ere dantzak, txitxi-burruntzia, txokolatada eta sua edukiko dute

19:00etatik aurrera, herri ikastetxean. Azkenik, Zamudio

20:00etan emango diote hasiera San Joan gauari. Besteak beste, umeentzako ikuskizuna, afaria, su artifizialak eta Fitoscopia taldearen kontzertua egongo dira.

Zamudio KEren irudi eta kamiseta berriak

Klubak 75 urte bete ditu, eta urteurrena dela-eta taldearen irudia berritzea pentsatu dute. Horretarako, logotipo lehiaketa antolatu zuten orain dela lau hilabete eta guztira 12 diseinu jaso dituzte.

Azaldu duten moduan, Astrabudua-ko Iker Torrescusa diseinua aukeratu dute, "arrazoi birengatik: alde batetik, diseinu ezberdina zelako; eta bestetik, proiektu berritzailea iruditu zitzaigulako". Egileak bere diseinua edukiko duen elastikoa eraman du saritzat. Izan ere, taldearen irudia ez ezik talde nagusiak 2018-2019ko denboraldian eramango duen elastikoa ere berritu dute.



Diseinua: Iker Torrescusa



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkobaok
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Ale-ghaindegia
M^a Antonia Llodio
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxo 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA



bai euskarari

baleuskarari.eus
/baleuskarari ziurtagiria
@baleuskarari

Ziurtagiriaren Elkarte

Lan eta bizi euskaraz



Txakolinaren Eguna, Lezaman

XVII. Txakolinaren Eguna ekainaren 3an ospatuko dute 11:00etatik 17:00etara, Udaletxeko plazan. Bertan 36 postu ipiniko dira bertoko produktuekin, hala nola eztia, gazta, euskal pastela eta barazkiak; eta, era berean, Lezamako eta Txorierriko bost upeltegiek hartuko dute parte azokan: Garkalde, Magalarte, Basalbeiti, Erdikoetxe eta Larrabe. Kopak eta txartelak salgai egongo dira udal postuan: kopa eta hiru txartel, sei euro; hiru txartel, lau euro).

Goizean zehar musika eta umeentzako tailerrak eta puzgarriak egongo dira. Kurutze dantza taldea kalejiran aterako da 11:30ean eta ondoren, agerraldia eskainiko du frontoian. Eguerdiko 12:30etik aurrera txerri-saiheski pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Azokari 13:00etan emango diote hasiera ofiziala. Kortxoa atera, brindisa egin eta Lezamako txakolinaren enbaxadorea izendatuko dute. Aurten Jagoba Zallo izango da. Horrezaz gainera, oroitzapenezko plaka emango diote Larrabe txakolinari eta ekitaldia eskainiko du Ekidazu abesbatzak. Arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara berbena egongo da plazan, Urrats taldearen eskutik.



kolinari eta ekitaldia eskainiko du Ekidazu abesbatzak. Arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara berbena egongo da plazan, Urrats taldearen eskutik.

Tunelaren ko

Euskal Trenbide Sarea lanak egiten dabil Txorierriko trenbidea hobetzeko eta geltokiak Bilboko Metroaren 3. lineako geltokiekin bateratzeko. Lanetan 5,5 milioi euro ipiniko dira. Lan garrantzitsuenetako bat Derioko tren-geltokia berritzea da. Alde bate-tik, oraingo ataria handitu egingo da, oinezkoen sarbidea egokitu eta igogailu bat ipiniko da, eta geltokiaren irisgarritasuna eta funtzionaltasuna hobetuko dira. Bestetik, Txorierri etorbidearen eta Astintze kalearen arteko oinezkoen trenbide-pasagunea kendu eta horren ordez azpiko pasabide bat eraikiko da. Pasabidea hiru metro zabal eta bederatzi metro luze izango da, eta 2,5 metroko sakoneran eraikiko da.

Herritar talde baten iritziz, azpiko pasabide hori, edo tunela, puntu beltz handi bat izango da eta Tunelik Ez Plataforma osatu dute, lanak geldiarazteko. Aste batean 1.000 sinadura batu dituzte eta horiek Udalari aurkeztu dizkiote. "Bizkai osoan dabilta horrelako tunelak kentzen, arriskutsuak direlako, bai emakumeentzat eta bai edozein herritarrentzat ere. Beraz, gurean berria egitea kontraesana da. Onartzen dugu, trenbide-pasagunea kentzen bada, auzokideei alternatiba bat eman behar zaiela, baina guk ez dugu tunel hori nahi". Horren haritik, aipatu digute beste proiektu bi aztertu direla hor ipintzeko, eta horietan bietan kanpoko pasabide bat jaso dela. Era berean, gogora ekarri dute leku horretatik egunero jende asko pasatzen dela, auzokoak zein langileak, eta tunelaren zabalera eskasa izango dela. Herritarren artean, tunelaren gaineko informazio gutxi zabaldu dela kexa hori ere adierazi dute.



ntrako plataforma sortu da Derion



Pasabidea hiru metro zabal eta bederatzi metro luze izango da, eta 2,5 metroko sakoneran eraikiko da

Esther Apraiz Derioko alkatearen esanetan, hasieran ez zegoen trenbide-pasagunea ordezkatzeko beste proiekturik, baina Euskal Trenbide Sareari eskatu zioten bertan igarobideren bat ipintzea, auzokideei kalterik ez eragiteko. Euskal Trenbide Sareak bakarrik azpiko pasabidea eman zuen bideragarritzat. Beste proiektu biak, hainbat arrazoi teknikogatik, baztertu egin ziren.

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Publikotik adierazitakoaren arabera, kanpoko pasabidea zazpi metroko alturan eraiki beharko litzateke trenbidearen gainetik, eta oso hurbil geldituko litzateke alboko etxeetatik. Ondorioz, bertako auzokideek intimitatea galduko lukete. Desjabetzeak ere egin beharko lirateke. Era berean, esan dute kanpoko pasabidea azpikoa baino

luzeagoa izango litzatekeela, eta erabiltzaileek denbora-tarte handiagoa eman beharko luketela leku batetik bestera pasatzeko. Azkenik, Erakunde Publikoaren ustez, azpiko pasabideak kanpokoak baino segurtasun-berme handiagoak eskaintzen ditu eta hobeto egokitzen da mugikortasun urriko pertsonen beharri-zanetara.

Segurtasuna

Proiektua Udaleko Hirigintza Batzordean landu zuten alderdi guztiek. "Guztiok esan genuen ez zela gehien gustatzen zitzagun aukera, baina Eusko Trenbide Saretik eman ziguten aukera bakarra zenez, pentsatu genuen hobe zela leku horretan igarobidea mantentzea, eta hartu beharreko neurri guztiak hartzea, oinez-

koen segurtasuna bermatzeko", esan digu Apraizek. Horrela, eta azaldutakoaren arabera, argiak eta bideo-kamerak ipiniko dira tunelaren barruan eta kanpoaldea urbanizatu egingo da. Gainera, aztertzen dabilta, beharrezkoa bada, tunela gauzez ixtea eta erabiltzaileei inkestak egitea, euren iritzia jakiteko. Lekua ez dela segurua egiaztatzen bada, tunela behin betiko ixtea ere gerta liteke. Plataformatik, hala ere, ez dute uste neurri horiek tunela leku segurua bihurtuko dutenik. "Erasoa edo lapurreta ez dira ekidingo; grabatu egingo dira, besterik ez". Bestetik, Apraizek azaldutakoaren arabera, bilerak egin dira proiektuak eragiten dien auzokideekin eta *Beitu* udal aldizkarian ere eman dute tunelaren berri.

Tunelik Ez Plataformako kideak alkaterekin batu dira eta euren ezadostasuna eta kezka jakinarazi dizkiote. Alkateak kezka horiek helarazi dizkie Euskal Trenbide Sareko ordezkariari, eta plataformak jasotako sinadurak ere aurkeztu ditu. Euskal Trenbide Sareko ordezkariak prest azaldu dira plataformako kideekin bilera edukitzeko eta obrari buruz hitz egiteko.

Plataformako kideak barikuetan bartzten dira Kultur Birikan. Haiekin harremanetan ipintzeko, tunelikezplataforma@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke.



Adrian Uriarte, Bizkaiko txapelduna

Adrian Uriarte Gordonek Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuen Zeanurin, maiatzean. Adrianek 18-11 irabazi zion lehen urteko gaztetxoaren finalean Zornotzako Etxebarriari. Gazte sondikoztarrak 12 urte ditu eta Lezamako pilota klubean jokatzen du. Adrianek txarto hasi zuen finala, baina, lasaitasunari eutsi zion eta buelta eman zion emaitzari. Azkenean, txorierritarra 18-11 nagusitu zen. Ez da Uriartek irabazten duen lehenengo txapela, baina azken garaipen hori oso baliagarria da. Izan ere, aurkariak sondikoztarra baino urtebete nagusiagoak izan dira.

Era berean, Oier Hormaetxe lezamarrek Herrialdeen arteko Ortuellako Txapelketaren 44. edizioa irabazi zuen kadete mailan, Orozkoko Ioritz Arbaizarekin batera. Txapeldunak 22-20 nagusitu dira Lier Arrien eta Aimar Morgaetxebarria zornotzarren aurka.

Guztiak ez dira albiste onak izan denboraldiaren azken txanpa honetan Lezamako Pilota Kluba-
rentzat. Iñigo Aurtenetxek Bizkaiko Lau t'erdiko txapelketaren finala galdu zuen Derion, maiatzaren 13an. Lezamarrek 11-22 galdu zuen Jon Legorburu galdakoztarraren kontra.

BKTren etapa bat Loiun izango da

Bizkaia Kopa Trail-aren saioa ekainaren 17an egingo da eta bost probatan parte hartzeko aukera egongo da: 10 kilometroko mendi martxa, 20 kilometroko mendi martxa, MTB karrera, Trail laburra eta Trail luzea. Izena ematea ekainaren 15era arte egin daiteke <http://www.bizkaia-kopatrail.com> webgunearen bidez (15:00ak arte), eta dortsalik baldin badago, probaren egunean bertan ere egin daiteke 08:00etatik aurrera. Aipatutako webgunean, etaparen eta proben inguruko informazio gehiago ipini dute eskuragarri.

Dorsalak hartzeko karpa eta irteera eta helmuga Aronsotegi plazan kokatuko dira. Bestetik, frontoian arropa gordetzeko zerbitzua, mahaia eta dutsak egongo dira parte-hartzaileen zerbitzura.

Saharako 30 umek Larrabetzun pasatuko dituzte udako oporrak



Udalak "Bakeleku Udalekua Larrabetzu-Bizkaia" proiektua kudeatuko du, Bakeleku Udalekua Bizkaia eta Zumaiako Darahli elkartearen laguntzarekin. Hori dela-eta, 30 ume sahararrek emango dute uda Larrabetzun. Udalak frontoia, igerilekuak eta eskola erabiliko ditu udalekua atontzeko, eta han sukaldari bat eta zortzi begirale boluntario –sei gazte larrabetzuar eta bi saharar– ibiliko dira umeekin. Ekainaren 1ean, Udalak proiektuaren berri emango du herri batzar batean. Ume sahararrak orain dela 28 urte etorri ziren lehendabiziko aldiz Bizkaira. Hasieran familiak hartzen zituzten, baina azken sei urteotan umeak Larrabetzun egingo den udaleku bezalakoetan ibili dira.

Udalekua "Oporrak Bakean" programaren barruan dago. Horren bidez, errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren milaka eta milaka haur sahararrek bi hilabeteko oporraldia igarotzen dute Euskal Herrian. Programa horrek helburu bikoitza dauka: batetik, 8 urtetik 12 urtera bitarteko umeek basamortu gordina utzi eta, beste edozein umeren antzera, oporrez gozatzeari; eta bestetik, Saharako herriak bizi duen gatazkaren berri ematea.

Saharako haurrek esperientzia erabat ezberdina bizitzeko aukera izango dute Larrabetzuko udalekuan euskal umeekin batera, inolako desberdintasunik gabe.

Dieta orekatua eta mediku azterketak eskainiko zaizkie, eta hainbat hezkuntza-jarduerara egiteko aukera izango dute. Horien bidez, euskara zein gaztelania ikasiko dituzte eta gure bizimodua ezagutuko dute. Azkenik, txangoak ere egingo dituzte parke naturaletara, kultur guneetara, udaletxeetara, herrietara, hondartzara, mendira...

Egoera latza

Sahararrak Aljeriako Tinduf inguruko errefuxiatuen kanpamenduetan, lurralde liberatuan eta Marokoren okupaziopean dagoen Mendebaldeko Saharako lurretan bizi dira duela 42 urtetik hona. Euskal gizarteak behin baino gehiagotan erakutsi die elkartasuna eta udaleku hau beste adibide baino ez da. Hainbat erakunde publikok zein pribatuk eskaintzen diote laguntza ekonomikoa "Bakeleku Udalekua" proiektuari. Dena dela, norbaitek babesa eman nahi badio, diru-ekarpenak egiteko aukera dago kontu korrante hauetan:

LABORAL Kutxa
ES05 3035 0037 4103 7005 0791
CAIXABANK
ES63 2100 4248 6621 0014 7895
KUTXABANK
ES08 2095 5174 9091 1793 1051

Samuel Ruiz: 605701463



Gorka Zallo | Arte funerarioa %99an

Nork esango zion Patxi Zallo marmolari derioztarraren semeari udako behin-behineko lan horrek teknikari administrarien mundutik betiko urrunduko zuenik? Hirurogeita hamarrek hamarkadan kri-siak gogor astindu zuen Txorierrri eta aitak laguntza eskatu zion Gorkari. Errausetaren mehatxupear bizirik dirauen ogibidean 38 urte igaro ostean, hileta-arte hutsean aritzeaz gain, bezeroei tratu berezia eskaintzea maite du Gorkak.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Zarratzean bizitza
honetako atea,
ingurukoek mina
gorpuak bakea.
Gorkari miresmenez:
Ez al da artea
betikotasunari
forma ematea?

Itallen Bertso Eskola

BC FUN
Fitness Gym

Saio pertsonalizatuak,
entrenatzaileen eskutik.

BCF entrenamendu
funtzionaleko gunea
(HIIT makinak, kardia funtzionala...)

Taldeko BCF saioak
(zirkoa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak
(high intensity eremua, indoor traila...)

BCF muskulazioa

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. lursaila, Ugaldeteguren II
48170 ZAMUDIO

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Arestizabakortza, 11 - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Unibe Plaza, 1
48130 ZAMUDIO
T: 944 521 370

HERRITEGIA
URDITEGIA
IMAZ

MUNIZALDE ETORRIDEA,2
TEL: 94 454 12 75

DERIO
Eskemik asko
etortzeagatik

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami asotea, 1
Tel: 94 454 12 08
Fax: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
KALAKALAKITA

Nerea Pedraza Galp. dir.
9445 20000 ZAMUDIO 48170

Tel: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Fax: 94 454 12 15

"Erraza da Go!azen-eko pertsonaiekin bat etortzea"

IHOLDI BERISTAIN MARTINEZ | abeslaria eta aktorea

Go!azen telesaileko neska-mutilak Txorierrira hurbildu dira maiatzean, Lagatzu Zamudio-ko euskara elkarteak gonbidatuta. Saioak ikusmin handia sortu zuen eta Baserri Antzokia gaztez bete zen eskaini zituzten emanaldi bietan. Iholdi telesaileko aktoreetariko bat da eta bertan Nahiaren papera egiten du.

t: Itxaso Marina

Baserri Antzokia leporaino bete zen. Zelan bizi zenuten zuek agertoki gainean?

Oso ondo pasatu genuen. Gure azken emanaldi biak ziren eta apur bat urduri ibili ginen. Baina urduritasun horrek onura ere ekarri zigun, agertoki gainean bi-ziago sentitzeko erabili genuelako. Beraz, uste dut oso ondo joan zela.

Go!azen telesaia oso arrakastatsua da eta horren seinale da Txorierrin emanaldi bi eskaini behar izan zenituztela. Zertan datza haren arrakasta?

Euskal produktu bat da, musikal bat, fikziozkoa eta gazteei zuzenduta. Nire ustez, osagai horiek uztartzen dituen beste produkturik ez dago, eta bere arrakasta horretan datza. Gainera, horretan kontatzen diren istorioak edozein profileko neska-mutilentzat dira eta erraza da pertsonaiekin bat etortzea. Nahiko telesaia "engantxagarria" da.

Nahia zara telesailean. Gustura?

Oso. Egia da, nire kideek ez bezala, nik ez nuela nire pertsonaia aukeratu; niri egokitu egin zitzaidan. Baina atzera egin ahalko banu, berdin-berdin aukera-

"Euskal produktu bat da, musikal bat, fikziozkoa eta gazteei zuzenduta; horretan datza Go!azen-en arrakasta"



"Nahia eta biok oso sentimentalak gara eta balio handia ematen diogu gure inguruan gertatzen denari"

tuko nuke Nahia. Asko gustatzen zaidalako. Pertsona berezia da, ausarta eta indartsua, eta oso polita den barne mundu bat dauka. Oso sentimentalak gara eta balio handia ematen die bere inguruko gauzei eta pertsonei.

Antzekotasunik dago Nahia eta Iholdiren artean?

Bai, eta egia esan, ez dakit oso ondo muga non dagoen, batzuetan pentsatzen dudalako Iholdik Nahiaren jokabideak dauzkala, eta beste batzuetan, alderantziz dela. Azken batean, gure bizipenek eragina daukate edozein paper sortzeko orduan. Nahia Iholdi baino ino-zaagoa da, beharbada. Gazteagoa da eta beste testuinguru batean bizi da, baina biok oso sentimentalak gara eta balio handia ematen diogu gure inguruan gertatzen denari, bai onerako, bai txarrerako. Bestetik, Nahiaren ilusioa neure buruarengan ere ikusten dut, oso pertsona gardena naizelako eta gauzak berehala igartzen zaizkidalako. Bioi berehala igartzen zaigu ilusioa.

Go!azen telesaia iaz Bago!az talent show-a irabazi zenuelako ailegatu zara. Zelan izan da esperientzia beste saio horretan?

Musika klasikotik dantza garaikidera

Iholdi (Portugalete, 2000) gehien gustatzen zaionean aritzen da: abesten, dantzan eta antzeztan. Hori dela-eta, oso eskertuta dago *Go!azen* telesailaren eskutik etorri zaion aukeragatik. Hala ere, esan digu berak ez duela bere burua ez abeslari, ez dantzari, ez aktoretzat hartzen, "lanbideari begirune handia diodalako".

Txiki-txikitatik eduki du harremana musikarekin eta espektakulu munduarekin. "Asko gustatzen zitzaidan musika klasikoa eta opera entzutea. Gurasoei Maria Callasen diskoak eskatzen nizkien (kar, kar)". Chaikovskiren lanerako zaletasunak eraman zuen, balleta ikastera. "Euskal dantzak ere egin ditut, dantza modernoa, garaikidea... Ez naiz dan-

tzari espezializatua, baina estilo asko gustatzen zaizkit eta gehiago ikastea nahiko nuke". Hainbat saltsatan dabilen neska da eta horregatik ez du oraindik denborarik eduki kantu eta antzezpene eskola jasotzeko. "Baina etxean oso zinemasaleak dira eta hamaika pelikula eta telesail daukagu ikusita, antzerkira joaten gara, kontzertuetara...".

Aipatu digu etorkizunari begira, eta zaila izan arren, gustatuko litzaiokeela antzerki musikaletan ibiltzea. "Eta, *Go!azen* moduan, filmatzen diren musikalak badira, askoz hobeto". Bitartean, buru-belarri dabil ikaske-tekin. Azterketa garaia da eta aitortu digu nahiko larrituta dagoela. "Baina dena gaintitzea espero dut. Oraindik ez dakit zer ikasiko dudan. Orokorrean kostatzen zait erabakiak hartzea, eta are gehiago ikasketen inguruan.

Aukera batzuk dauzkatzat: kazetaritza, ikus-entzunezko komunikazioa, antzerkigintza...".

Paregabea, asko ikasi dudalako. Profesionalki, noski, baina batez ere pertsonalki. Oso gustura egon naiz eta esperientzia milaka aldiz errepikatuko nuke. Egia da presio handia eduki nuela eta larritasunaren ondorioz momentu latz asko bizi izan nituela. Gogor saiatu nintzen eta, nire ustez, ahaleginak onerako baldin badira, bada, merezi du horiek egitea. Beraz, errepikatzeko moduko esperientzia izan da.

Proiekturik esku artean?

Momentu honetan dauzkadan proiektu guztiak *Go!azen* teleaioarekin daude lotuta, baina etorkizunari begira, ez diot ezeri atea ixten. Bestetik, etxean nabil nire kanta egiten, baina hori beste kontu bat da. Nire gaur eguneko proiektua *Go!azen*-ekin jarraitzea da, eta, gero, ez dakit hortik nora.



Akrobata *skate park*-ean

t/a: Itxaso Marina

IZAN GARCÍA | *rider-a*

Izan Lezamakoa da eta 14 urte ditu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila dabil ikasten Txorierrri institutuan, Derion. Txikitatik dauka lotura estua kirolarekin eta esan digu etxean badagoela urte bat-edo zeukaneko argazki bat, *skate* taula gainean. Futbolean egin du, baita eskupilotan ere, eta moto-krosean aritu da, baina berari benetan gustatzen zaiona patinatzea da. Horregatik utzi zion aipatutako beste kirolak egiteari. "Gero, zazpi urte neuzkala, amak patinete tolesgarri bat erosi zidan eta erabiltzeko errazagoa iruditu zitzaidan, erosoago nindoan... eta *skate* albo batera utzi nuen. Amak erositako patinetea apurtu zitzaidanean berria erosi nuen eta horrela hasi nintzen *Scooter Free Style* praktikatzan".

Kirol horrek poztasuna ekartzen diola aipatu digu, eta ahal duen guztietan patinatzerara joaten dela. "Batez ere asteburuetan eta libre daukadanean. Normalean Leioara joaten naiz, Galdakaora, Bilbo-ra... eta Iruneraino ere eraman naute gurasoek. Lehen patinatzeko U bat geneukan herrian, eta bere ezaugarrien aldetik oso ona ez bazen ere, bazen zerbait... Lezaman beste bat ipiniko balute, erabili egingo nuke, noski". *Rider*-ak azaldu digun moduan, *Scooter Free Style* patinetea erabilia ahal diren gauza guztiak egitean datza. "Itzulipurdiak, trukoak, barandetara eta bankuetara igo... *Skate park*-etan edo kalean bertan praktika daiteke". *Skate park*-en ezaugarriei buruz esan digu on batek apur bat denetarik eduki behar duela. "Arrapalak, kaxak, barandak... Baina ni ondo moldatzen naiz edonon patinatzen, eta arrapala asko eta kaxa gutxi dauzkan U bat gustatu dakidake, eta barrik kaxak eta barandak dauzkan beste U bat ere bai".

Bere talentuaren publizitate handirik ez du egin nahi, baina Izanek aho bete hortz utzi zituen apirilean Break On Stage Festibalean batu zirenak. Are gehiago, *skate park*-ean egindako itzulipurdiek eta trukoek garaipena ekarri zioten *Scooter Free Style* modalitatean.



"Gehien gustatzen zaidana itzulipurdiak egitea da. Alboz, bi egiten ditut"

"Patinetea berritzen joatea gustatzen zait: taula berriekin saiatzea, gurpilekin, eskulekuekin..."

"Patinatzen gogoa kendu arte edo ezin arte jarraituko dut"



Trebetasun handia daukan *riderra* da eta badaki. "Gehien gustatzen zaidana itzulipurdiak egitea da. Alboz, bi egiten ditut. Indar handia egin behar da itzulipurdia ibiltzeko eta oso neketsua da. Batzuetan nagia eta guzti sortzen dit... Baina beste batzuetan ez diot uzten itzulipurdiak egiteari... Zorabiatu ere egiten naiz". Dena dela, aspaldi honetan apur bat kontu handiagoarekin dabilela aitortu digu. Izan ere, nahiz eta babesgarriak erabili, lesio asko izaten ditu. "Orain orpoko minarekin nabil... Eta orpoko mina ez denean besoko mina da, orkatilako mina, hatzamarretakoa... Hortzak ere apurtu ditut... behin baino gehiagotan. Gerrako zauriak direla esaten didate; bai zera, zela-ko mina! (kar, kar)".

Patinete zurrunak

Kirol minoritarioa da izanek egiten duena, eta hori praktikatzeko lekuak topatzeko orduan ez ezik patineteak erosteko orduan ere bada nabaria. "Gasteizko denda batean erosten nituen lehen, baina itxi egin zuten eta orain Interneten bidez erosten ditut. Gutxi gorabehera urtean behin erosten dut patinete berria; Olenzterori eskatu ohi diot (kar, kar). Baina inoiz ez dakizu; gerta daiteke urte batean patinete bi apurtzea... Nolanahi ere, niri patinetea berritzen joatea gustatzen zait: taula berriein saiatzeari, gurpilekin, esku-lekuekin...". Bere gustuen haritik, aipatu digu patinete zurrunak nahiago dituela. "Eskulekua tolesgarria izan dadila eta helduleku erosoak eta luzeak eduki ditzala; taula zabala izan dadila, orpoko mina ez izateko; eta balaztak eduki ditzala, zapa-tilak ez apurtzeko. Patineteak garestia-kiak diren? Beno, prezio askotarikoak daude".



Ordu asko ematen ditu YouTube-n, besteak beste, Estatu Batuetako, Zelanda Berriko eta Australiako *rider*-en bideoak ikusten. "Gehien gustatzen zaidana Roomet Säälük da, Estoniako mutil bat. Nik ere ospea lortu nahi badut, jarraitu beharko dut ondo patinatzen eta txapelketetan parte hartzen". *Scooter Free Styler*ako daukan zaletasunak eraman du kirol honi buruz han eta hemen aztertzeri eta hainbat



txapelketetan aritzera: Donostian, Irunen, Durangon eta Bartzelonan, tartean. Break On Stage festibala azkena izan da. "Egia esan, ez nuen espero irabaztea. Zenbait gauza zelan egin nituen ere ez dakit... Ni saiatu nintzen eta atera egin zitzaizkidan". Hala ere, hori ez da irabazi duen lehiaketa bakarra. Esate baterako, Donostian ere txapelduna izan zen. "Entrenatzen jarraitzea gustatuko litzaidake, txapelketetan parte hartzea eta tituluak irabaztea".

Patinete gainean dabil Izan leku bate-
tik bestera. "Nik patinatu egiten dut gus-
tatzen zaidalako eta kito. Institututik ate-
ra eta modu bat da ikasketak, arazoak...
albo batera uzteko. Patinatzen gogoia ken-
du arte edo ezin arte jarraituko dut". Hala
bedi, ba.



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lurrikote Herria eta Euzko Ikastetxeak Nazioarteko
Unibertsitateak
Unibertsitate Euzko Ikastetxeak, 1
48100 - DEIRO
Tel.: 94 403 40 40
Fax: 94 403 40 41
info@txorierri.net
www.txorierri.net
Euzko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK IREKITZEKO EGUNA

Gure instalazioak, talerrak eta laborategiak berr-
dizkizue (18.30ean)

Apirilaren 24an
Maiatzaren 3an
Ekainaren 7an

BATXILERGOA

• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

• Mekaniako Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekaniako Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzio Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazio eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Ekipamendu Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari



Txorierrin galdutako 39 txakur itzuli zaie euren jabeei

Mankomunitateak abandonatzen edo galtzen diren etxeko animaliak batu eta zaintzeko zerbitzua eskaintzen du. Horrek, herritarrek Udalari edo Ertzaintzari emandako abisuak jaso eta erantzuna ematen die.

Zerbitzuari esker, iaz 39 txakur itzuli zitzairen euren jabeei, eta 17 adoptatu ziren. Azken horietako hiru, 2016an jasotakoak ziren. Zerbitzua enpresa espezializatu baten bidez ematen da. Enpresa horrek txakurrak eta katuak (kalekoak ez) hartu eta jabeekin ipintzen da harremanetan animaliak itzultzeko, eta aterpetxean hartu behar direnak jaso eta zaintzen ditu.

Udaltzaingoaren, aguazilaren, Ertzaintzaren edo, oso noizbehinka, herritarraren deia jasotzen dutenean, enpresako langileak animalia topatu den lekuan azaltzen dira eta txiparik duen egiaztatzen dute, jabearekin harremanetan jartzeko. Batzuetan, eta denbora-tarte labur batean, animalia dagoen lekura bertara hurbiltzen da

*Jabea identifikatu
ezin denean, animalia
Barakaldon dagoen
aterpetxe batera
eramaten da*

jabea, baina horrela gertatzen ez denean, eta jabea identifikatu ezin den kasuetan, animalia Barakaldon dagoen aterpetxe batera eramaten da. Bertan, langile kualifikatuak egiten diote osasun-azterketa eta saiatzeko dira jabearekin harremanetan

tan ipintzen. Jabeak 22 euroko tasa ordaindu beharko du animalia hartzeagatik, eta beste tasa bat animaliak aterpetxean emandako egun kopuruaren arabera. Horrezaz gainera, txipa ipiniko diote txakurrari.

Legearen arabera, jabeek zazpi eguneko epea dute euren animalia berreskuratzeko, baina txakurrak galdu diren egunean bertan edo hurrengoan hartzen dira normalean. Astebete pasatu ondoren, jabeak animalia berreskuratu ez badu, edo jabea nor den jakin ez bada eta 30 eguneko epea bete bada, txakurra adopzioan jartzen da. Aterpetxea 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 18:00etara dago zabalik.



Oinarritik hasi, gaztarotik pasatu eta senior mailetaraino eraman du euskara Txorierri Basketland elkarteak, 2017-2018 saskibalo denboraldian zehar. Zoriontzeko moduko ahalegina, bai horixe. Izan ere, Bizkaiko kirol elkarten artean horrelako adibide gutxi daude. Horrela, aisialdian euskarari aparteko ekarpena egiteaz gain, Bizkaiko kirol sistemaren sarean erreferentzia garbia da. Orotara 13 talde dituen elkarte orain dela hiru urte jaio zen, eta ordutik hona talde kopuruaren hazkundea nabarmena izan da. Aipatutako taldeek Sondika, Zamudio eta Derion jarduten dute.

*Txorierri Basketland
elkarteak bultzada
berezia eman dio
euskarari
denboraldi honetan*



Zentzu honetan, esan beharra dago bukatzeaz dagoen denboraldi honetan, Txorierriko Mankomunitatearen laguntzarekin, elkarte honek euskarari bultzada berezia eman diola: "Baietz lortu saskibaloian ere euskaraz olatzea" kanpainaren iragarpen agerraldian parte hartuz, kan-

paina bi hilabetetan zehar entrenamendu nahiz partidetan gauzatuz (124 jokalaria eta entrenatzaileengan eraginez), elkartearen komunikazioan euskararen presentzia areagotuz, zenbait partidatan euskarazko zuzeneko emankizunak burutuz, denboraldian zehar entrenamendu nahiz

partidetan jokalaria nahiz entrenatzaileen artean euskararen erabilera areagotuz...

Beraz lerro hauek balio dezatela egin-dako lana aintzat hartzeko. Beste hainbat kirol elkarteek euskarari bultzada eman nahi badiote, badute zein ispilutan begiratu!

600 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte Osasunaren aldeko V. Lasterketan



Apirilaren 22an, domekan, 600 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte Osasunaren aldeko V. lasterketan. Txorierriko Mankomunitateak antolatzen du lasterketa, eta aurten Sondika eta Loiu udalerrien arteko ibilbidea izan da. Adin guztietako parte-hartzaileek giro onaz eta kirolaz goatzeko aukera izan zuten, eta, gainera, babes solidarioa eman zioten Caritas Sondika erakundeari eta Loiuo Danontzat Elkarteari. Ekimenaren xedea da Txorierriko eta Bizkaiko familien artean kirola eta ohitura onak sustatzea, bizitza osasungarriagoa izateko. Parte-hartzaileek ibilbidea bizikletaz, korrika edo oinez egin ahal izan zuten, eta bi ibilbide egin ziren: luzea (10 km-koa) eta laburra (6 km-koa).



t/a: Gaizka Eguzkitza

Zergaitik ikasi zenduan Historia?

Institutuko ikasketak amaitu nebazean, ez neukan argi zer ikasi. Hiru aukera neukazan: Historia, Kazetaritza eta Gorputz Hezkuntza. Badakit oso desbardinak dirala, baina ni horrelakoa naz, ipurtarina. Eta azkenean, Gasteizera joan nintzan Historia ikastera.

Zelan Gasteizen?

Ondo, pozik bizi izan nintzan bertan. Garai hatan ez neban uste Larrabetzura itzuliko nintzanik. Historia karrera normalean lau urtean amaitzen da, baina nik sei urte emon nebazan, patxadaz hartu nebalako eta ikasten nenbilela lanean be ibili nintzalako. Baina ikasketak amaitutakoan, aldaketa behar neban eta Larrabetzura itzuli nintzan.

Eta zelan herrian barriro?

Pozik nago hartutako erabagiagaz. Hiriburuek porlan lar daukie. Larrabetzu, aldiz, lasaia da. Lasaia, baina bizia. Herri mugimenduak itzelezko beharra egiten dau eta batzuetan ez dakit hori behar dan moduan aintzat hartzen dan. Herria txikia da eta guztiok ezagutzen dogu alkar. Larrabetzu aldatu egin da azken urteotan, kanpoko jente asko etorri dalako, baina eroso bizi naz. Ez neuke ezeren truke aldatuko.

Historia oso zabala da. Zein da gehien interesatzen jatzun garaia?

Garaikidea, zalanza barik. Orokorra eta, jakina, bertakoa. Politika be interesatzen jat. Nire ustez, historia gertu horrek laguntzen deusku gaur egungo gizartea eta politika ulertzen. Ez dogu gure gertuko historia lar ezagutzen eta hori penagarria da. Egia da oso arin bizi garala, baina gure historiatic dator gure nortasunaren zati handi bat. Batzuetan pena emoten deust zer gitxi dakigun gure iraganari buruz. Badirudi gure aitite-amamen historiak bardin deuskuala. Gizarteak historiaren garrantziaz jabetu beharko leuke.

"Ipurtarina naz"

AINHOA LARRABE | kazetaria

Ainhoak *Berria* egunkarian egiten dau lan, baina ez eban Kazetaritza ikasi, Historia baino. Gazte larrabetzuarra horrelakoa da, ipurtarina, zenbait arlotan dauka interesa. Eta inplikatu egiten da, hainbat proiektutan murgilduta dagoalako. Lotsatitzat jotzen dau bere burua, jente aurrean berba egitean, baina gu oso gustura ibili gara beragaz.

"Ez dogu gure gertuko historia lar ezagutzen eta hori penagarria da"

"Hiriburuek porlan lar daukie. Larrabetzu, aldiz, lasaia eta bizia da. Ez neuke ezeren truke aldatuko"

"Euskerea ez dogu behar dan moduan zaintzen. Hau da, nahiz eta euskaraz ikasi eta bizi, txarto idazten dogu"

Karrera amaitu eta berehala, beka egin zenduan Berria egunkarian. Zelan sortu zan aukerea?

Berria egunkarira kasualidadez heldu nintzan. Gasteiztik etorri nintzanean, ez nekien zer egin. Master bat hasi nuen euskal abertzaletasunari buruz, baina ez neban amaitu. Eta kuadrillako bategaz hasi nintzan txantxetan ea beka egiteko eskaera egingo neban. Ez ebezan Kazetaritza ikasketak eskatzen eta azkenean animatu nintzan. Beranduago, aukeratu ninduten beka egiteko eta hori amaitu nebanean, kontratua egin eusten. Lagunek intrusismoa leporatzen deuste txantxetan (kar, kar).

Zelan izan zan historialari baten tzat, kazetari lan egitea?

Hasieran, gogorra izan zan eta txarto pasatu neban. Izan be, ez nekien izenburu bat be egiten. Gainera, konturatu nintzan euskerea ez genduala behar zan moduan zaintzen. Hau da, nahiz eta euskaraz ikasi eta bizi, oso txarto idazten dogu euskaraz eta askotan garrantzi gitxi emoten deusagu honeri. Eta gazte askok ez dabe euskaraz adierazteko gaitasun handirik, ez ahoz, ez idatziz. Niri be gertatzen jat: arazoak dodaz jente aurrean berba egiteko. Eskolan arreta gehiago emon beharko jako adierazpenari. Batzuentzat txorakeria



RADIO TAXI FEMADE
Zuzen bidez, Telesistematik
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Leku
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxiisereopuertobilbao.com



DESCARGA APP-A
TAXI FEMADE



ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781



Ainhoa Larrabe Arnaiz Larrabetzun jaio zan 1988an. Historia ikasi eban eta kazetari dabil lanean, baina Ainhoak jakinmin handiko neska bat da. Esate baterako, Irakaskuntzarako gaitasun agiria lortzeko ikastaroa dabil egiten. "Oraindik ez dakit azkenean irakasle bukatuko nintzan ala ez, baina tira, badaezpadan... Praktikak Derioko institutuan egin dodaz, eta oso gustura ibili naz. Izan be, nire irakaslea izan zana nagaz, Ana Hurtadogaz, egin dodaz. Esperientzia polita baina gogorra izan da, irakaskuntzan ondorengo belaunaldiak hezten zabiltzalako. Ez dakit lan hori egiteko pertsonarik egokiena nazen".

Hezkuntza betidanik interesatu jako. Unibersidadea bukatu bezain laster, Euskal Herri Bere Eskola mugimenduan ibili zan. "Horrek hezkuntza sistema nazionala lortzea dau helburu. Izan be, Madrilek antolatzen dau gure hezkuntza-sistema. Eskola da herri baten etorkizuna eta isla, eta ez badoguz guk gura doguzan herritarrek hezten, jai daukagu. Gure hizkuntza-sistema oso jakobinoa da: hizkuntza bakarra,

Ekintzailea eta konprometidua

kurrikulum nazionala, pedagogia bakarra... Euskal gaiak ikasi behar dabez euskal umeek, jakina, baina tokikoak, be bai. Hau da, Larrabetzuko ume batek Larrabetzuko edukiak ikasi beharko leukez; eta Lezamako batek, Lezamakoak. Ez dot sinesten testu liburuetan oinarritutako sistema baten, testu liburuak helburu zehatz bat daukielako, kurrikuluma betetzea, hain zuzen be".

Aranzadi

Bere herria eta bere historia be badiara Ainhoaren kezka. Ez da harritzekoa, beraz, Karraderan alkarteko kidea izatea. "2015ean, mendi lasterketa antolatu genduan eta bitartean, Burdin Hesiaren aztarnen bila ibili ginan menditik. Eta hori serio egiteko, Aranzadi alkarteagaz jarri ginan hartu-emonetan. Eurek kontratu txiki bat egin eutsien ikerketa aurrera eroateko. Nire kabuz nabil, ahal dodanean, baina gustauko litxakidana baino askoz astiroago noa".

"Irakaskuntza polita baina gogorra da, ondorengo belaunaldiak hezten zabiltzalako"

Horri lotuta, Ainhoa jente nagusia grabatzen hasi da, gerra garaiko esperientziak jasotzeko. "Zoritxarrez, 1936ko gerra zuzenean bizi izan eben gehienak hilda dagoz. Eta bizirik dagozanek 5-6 urte ebezan garai hatan, eta euren gogorapenak ez dira oso argiak. Halanda be, hori guztia jaso behar da. Ez dakit zer egingo dogun materialagaz, seguruenik data-basea osatu eta hori Udalarari emon. Eta gerra Interesatzetan jat, baina hori baino gehiago, garai hatan egon zan aldaketeta maila guztietan: politikea, gizarte, kultura...".

izango da, baina euskera gure hizkuntza da eta zaindu behar dogula uste dot.

Berria egunkarian danetarik idatzidozu, baina batez be kulturea eta politikearen gainean...

Bai, politikeagaz ez daukat arazorik, baina kulturea kostau egin jat. Egokitu jat horren inguruan idaztea eta egin dot, gustura, baina seguruago sentidu naz politikearen gainean idazten. *Berria* egunkariak askatasuna eta malgutasuna emoten deutsu gaiak jorratzeko eta proposatzeko, eta gura dozuzan moduan lantzeko, zuen interesen arabera. Zentzu horretan zorte handia daukat.

Berria erreferentea da Euskal Herrian. Harrotasun berezirik ekarten deutsu bertan behar egiteak?

Bai. Komunitate baten parte sentiduten naz. Eta lana ez da erraza, nahiko estua dalako: soldata ez da ona, ezta ordutegiak be... Militantzia handia ekarten dau, behintzat beste lan batzuek eskatzen ez dabena. Nik beti esaten dot munduko egunkaririk onena egiten dogula (kar, kar).

Non ikusten dozu zeure burua 10 urte barru?



Bizitza aldatu egin da, gure gurasoen moduan bizi gura dogu, baina ezin da. Lan-baldintzak ezbardinak dira eta ez dago segurtasunik. Ez dakit non egongo nazen 10 urte barru. Bizitza osoa emango dot horrela, gauza barriak ikasten eta arlo

ezbardinetatik mugitzen. Ez dot sinisten bokazioen kontu horretan, betiko kontuak aspergarriak diralako. Plan handirik ez dot egiten, baina aldi berean, horrek antsietatea ekarten deust (kar, kar). Bakotxaren kontraesanak, zer egingo deutsagu!

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK
uztailean eta irailean

MATRIKULA ZABALIK
(ekainaren 26a arte)

B1 B2 eta C1
prestatzeko ikastaro trinkoak
Mintzapraktika

Bulego orduak:
8:30-14:00
16:00-18:00

*Endu geugaz.
egizu euskeraz!*



Parte-hartzaileak eta solidarioak

Horreexek dira aurtengo jaiak bereiziko dabekan ezaugarriak. Izan be, Udaletik azaldu deuskuen moduan, herriko alkarte guztiek hartuko dabe parte antolatutako ekitaldietan. Ganera, ekintza solidarioak egingo dira eta batzen dan dirua Ataxia Friedreich gaitasuna dabenei laguntzera zuzenduko da. Nobedadeak be egongo dira.

a: Juanjo Ortiz

Egun biziak biziko dabez sondikoztarrek ekainaren 20tik 24ra bitartean. San Joan jaiak ekitaldiz beteta etorriko jakez aurtan, eta umeek, gazteek zein helduek eukiko dabe zer egin eta zertaz disfrutau. Motorrak berotzeko, Pentagrama kultur alkarteak kontzertua eskainiko dau eguaztenean, eta jaiei barikuan emongo jake hasiera ofiziala. Txupina bota aurretik, umei zuzendutako ekintzak izango dira, eta txupina bota ondoren, Gorritiren animaliak eta talo txikien dastaketea egongo dira. "Gauean, eta nobedade moduan, akordeoien festibala egongo da Pentagrama kultur alkartearen eskutik. Oso ekitaldi polita izango da eta bertan herriko alkarte askok hartuko dabe parte". Musikak Akerbeltz erromeria taldeagaz jarraituko dau.

Zapatua be nobedadeakaz etorriko da. Alde batetik, Hegalariak FTK "San Joan" Padel Txapelketea antolatu dau lehenengo aldiz, eta horren finala goizean jokatuko da. Bestetik, Master Txef Txiki saioa egingo da, sei urtetik 13 urtera bitarteko umei zuzenduta. "Errezeta bat emongo jake. Hor agertzen diran osagaiak hartu eta errezeta hori prestatu beharko dabe". Altzora euskera alkarteak txakurren heziketearen erakustaldia antolatu dau eguerdirako.

Zapatuan, Sukalki Txapelketea be egongo da. "Sukalki eta Tortilla Txapelketek arrakasta handia izaten dabe. Tortilla Txapelketea egunez aldatzea erabagi genduan igaz, hau da, barikuan barik zapatuan egitea, eta bete-betea asmatu genduala uste dot. Izan be, marka guztiak apurtu genduzan, txapelketara 48 tortilla aurkeztu ziralako. Espero daigun aurtan

*Akordeoen festibala
eta umeentzako
gastronomia saioa
egongo dira
nobedadeen artean*

be zifra antzeko bat izateal!". Gauean, Sondikako jaietako momenturik politenetariko eta ikusgarrienetariko bat ailegauko da. San Joan bezpera da eta sondikoztarrak eskuan suziak dabezala kalejiran urtengo dira liburutegitik San Joan landaraino. Kalejiran 500 lagun inguruk hartzen dabe parte urtero eta gero guztiak batzen dira landan, su inguruan, ohiturari euste-

SONDIKAKO JAIETAN EZ DUGU ERASO SEXISTARIK ONARTZEN

 SONDIKAN ONDO PASA
ETA EZ ZAITEZ PASA!!!





yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TXORIERRI

Inmobiliaria

Justo Ajarla, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 32 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

asingararik gaita

ARROLATUAK - TANATZEN
ARROLATZEN - ERROKATZEN
SALERROKATZEN
BOKATZEN BILAKATZEN AGENTZIA




IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 574 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com



ALTZARA
Sondikako euskara elkarte



**NDO PASA
JAIETAN!**

Txorierril, 30
48150 SONDIKA

 94 453 35 05
667 78 63 31



**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurreazaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza Iturrondo, 2 (gola)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbarenbarri - Bilbo



GinkanApp lehiaketea antolatuko da eta bardintasunaren aldeko photocall-a egongo

tabernak "Sondika Pintxotan" txapelketea irabazi dau aurten eta bere pintxoak euro baten ipiniko da salgai. Bestalde, pintura ikastaroetan dabilzanek "Las Campesinas" izeneko koadroa osatu dabe guztiok batera eta hori zozketatuko da. Zozketan parte hartzeko txartelak ekainean zehar eskuratu ahalko dira herriko dendetan eta udal eraikinetan. Jaietan, txosnetan ipiniko dira eskuragarri. Azkenik, igel toka solidarioa egongo da arratsaldean".

Aitatutako ekintzez ganera, mendi martxea egongo da domeka goizean, kalejirea eta motorren eta Mini ibilgailuen kontzentrazioa. Sondikan Berton alkar-teak puxikak askatuko dauz eta horreen barruan merkataritza beherapenak sartuko dabez.

Hegalaria taldeak herritarren eta al-karteen bazkaria antolatzeko ardura dau aurten. Bazkaria oso arrakastatsua izaten da eta oraingo honetan be holan izango da, ziur asko. Arratsaldean *Parkour* erakustaldia egongo da *skate* pistan, eta jaia Gori Erdikoa plazara eroango da nagusiek be disfruta dagien. Bertan orkestra bat arituko da eta txokolatadea eskainiko jake. Eguna biribiltzeko, dantza agerraldia egongo da Gorantzaileak dantza taldearen eskutik, eta gaueko 9etan azken tra-kea botako da.

Photocall-a

"Aurreko jaietan GinkanApp lehiaketea antolatu genduan lehenengo aldiz, eta aurten be egingo da. Sondika zabal-tzen udal aplikazioaren bidez hiru galde-ra botako dira jaien gainean, galdera bat egun bakotxean, eta txapelketan parte hartu gura daben sondikoztarrek erantzun beharko dabe. Irabazleak lagun bi-rentzako bazkaria jasoko dau saritzat". Era berean, bardintasunaren aldeko *photo-call*-a ipiniko da landan, "Sondikan, jaietan ere berdintasunaren alde" lelopean. Esan moduan, bizi-biziak izango dira San Joan jaiak aurten. Sua biztu daiun, beraz!



ko. Skakeitan taldea eszenatokira igoko da gauerdian.

Egun nagusia

Domeka izango da egun nagusia eta goizean zein arratsaldean ekitaldi sorta zabala egongo da herritar guztientzat. Ganera, solidaridadeak protagonismo berezia eukiko dau, Ataxia Friedreich gaixotasuna dabenei laguntzeko hiru ekintza antolatu diralako. "Eguerdian pintxo solidarioaren dastaketea egongo da. Aragua

Jai-egitaraua

Ekainak 20, eguaztena

- 19:30 Pentagrama kultur alkartearen kontzertua, Sondika-ko Kultur Etxean.

Ekainak 22, barikua

Barraken egun herrikoia (17:00etatik 20:00etara, 1€).

- 15:00 Haurrentzako jolas parkea, Gorondagane gurasoen alkartearen eskutik.
17:00 Dj animatzailea, Gorondagane gurasoen alkartearen eskutik.
19:30 Txupina eta zapiak banatzea, Gorabide erakundearen laguntzagaz.
19:45 Gorriti
20:00 Galdera GinkanApp.
20:00 Talo txikiak dastatzea.
21:30 Pentagrama kultur alkartearen emonaldia, herriko alkartearen laguntzagaz.
23:30 Erromeria: Akerbeltz.

Ekainak 23, zapatua

- 11:00 "Joan Deuna" I. Padel Txapelketearen finala eta sariak banatzea. Hegalariak FTK antolatua.
11:00 Kalejirea, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
11:30 Haurrentzako jolas parkea, San Joan zelaian.
12:00 Master Txef Txiki.
13:00 Txakurren heziketa. Erakustaldia, Altzora euskara alkarteak antolatua.
14:30 Sukalki Txapelketea: kazolak aurkeztea.
14:30 Galdera GinkanApp eta lehenengo saria banatzea.
16:30 Mus Txapelketea, Hegalariak FTK antolatua.
17:00 Musika animazinoa, Broken Izotz taldeagaz.
18:00 Balkoi apainduen VII. Txapelketearen sariak banatzea, Udaltzatza Aretoan.



- 18:00 Tortilla Txapelketan izena emotea, Sondika KTren txosnan.
18:30 Jaurti zure hirukoitza, Gorondabeko kiroldegian.
20:00 Tortillak aurkeztea.
22:15 Suziak banatzea, liburutegian.
22:30 Kalejirea eta San Joan sua.
24:00 Kontzertua: Skakeitan.
02:00 Dj animatzailea.

Ekainak 24, domeka

- 10:30 Mendi martxa, Sondika Mendian alkarteak antolatua.
11:00 Kalejirea, Ipar-Elaiak txistu taldeagaz.
12:00 Mezea eta aurreksua.
12:30 Gazteleku fanfarrea.
12:30 Motorren eta mini ibilgailuen kontzentrazioa, Sondika Motor eta hegalaria taldeek antolatua.
13:00 "Sondika Pintxotan" Txapelketearen pintxo irabazlea dastatzea, 1 € (Aragua taberna). Batzen dan dirua, Ataxia Friedreich gaixotasuna dabenei laguntzeko.
13:30 Jubilatuen kopaua.
14:00 Sondika Berton alkarteak puxikak askatzea: behearpenak, gozokiak eta ezustekoak.
14:30 Galdera GinkanApp eta bigarren saria banatzea.
14:30 Herritarren eta kultura eta kirol alkartearen bazkaria.
16:30 Udaltzat pintura ikastaroetako lagunek egindako "Las Campesinas" koadroa zozketatzea. Dirua, Ataxia Friedreich gaixotasuna dabenei laguntzeko.
16:30 Trikiaku, bazkarian.
17:00 Parkour erakustaldia, skate pistan.
18:00 Jamaika orkestrea eta txokolatada, adinekoentzat. Goiri Erdikoa plazan.
18:00 Igel toka solidarioa, Ataxia Friedreich gaixotasuna dabenei laguntzeko.
19:30 Dantza agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.
20:45 GinkanApp hirugarren saria banatzea.
21:00 Azken trakea

t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

Izartu Zamudio taldetik adierazo eben moduan, 2.750 zamudioztarrek eben botoa emoteko eskubidea eta herri-galdeketa 661 herritarrek hartu eben parte, % 24, 04k hain zuzen be. Boto emoileen % 96, 82k baietz erantzun eutsan hurrengo galdereari: Euskal herritarra izanik, geure etorkizuna libre erabakitze eskubidearen alde zagoz?; eta % 1,51k ezetz. Horrezaz ganera, % 1,66k boto zuria emon eban eta ez zan boto baliobakorik egon.

Lezaman, eta Izartu Lezama alkartearen datuen arabera, 2.047 herritarrek eben botoa emoteko eskubidea eta eskubide hori 625 lezamarrek erabili eben, hau da, % 30,53k. Bertan galdera hau egin zan: Euskal Herri burujabe bateko herritarra izan gura dozu? Boto emoileen % 94,24k baietz erantzun eban eta % 2,72k, ezetz.

*Emoitzari baino,
parte-hartzeari eta
egon diran giroari eta
alkarlanari emoten
deutsei garrantzia*

*Ekainaren 10ean Bilbo,
Donostia eta Gasteiz
batuko dauzan Giza
kateagaz bat egiteko
gonbitea bota dabe*

Erabakitze eskubidea zamudioztarrek eta le

Gure Esku Dago dinamikearen haritik, herri-galdeketea egin zan Zamudion eta Lezaman maiatzaren 6an. Antolatzailak jakinarazotako datuen arabera, 1.286 herritarrek emon eben botoa.

Boto zuria % 2,56k emon eban eta botoen % 0,48 baliobakoak izan ziran.

Antolatzailak herri-galdeketa parte hartu eben herritar guztiak zein lantaldeak osatu ebezan lagunak zoriondu dabez. "Balorazioa erabat positiboa egiten dogu M6ko egunaren gainean. Herriko eragileek

sortutako giroagaitik zein botoa emotera etorri zan jentearen jarrera bakoitzagaitik", esan deuskue Izartu Lezamatik. "Normaltasun osoz joan zan eguna eta herritar guztiak izan eben ariketa demokratikoan parte hartzeko aukerea". Momentu hunkigarri asko bizi izan ebezan egun osoan



erabili dabe zamarrek

zehar eta modu berezian azpimarratu dabe familia bereko hiru belaunaldi alkarrekin botoa ematera joan eta argazkia egin eben unea. Eguna biribiltzeko, hainbat ekintza antolatu ziran, ipuin kontalaria, kantaldia eta txakolinaren dastatzea tartean, eta horreetan be giro ederra egon zan.

Herri-galdeketearen aurreko egunen inguruko balorazioa be egin dabe Lezaman. "Hau da garrantzitsuena, gure ustez: izan doguzan eztabaiden emoitza, galdera adosteko egindako lana, prozesua aurrera aterateko herritarrengandik jasotako laguntasuna, ibilbidean sortutako konplizidadeak, gureganatutako konfiantzak... Horreek danak geldituko dira emoitzetatik harago; etorkizunerako geldituko dan oinarri demokratikoa da".

Giza katea

Momentu hunkigarri asko eta asko bizi ebezan zamudioztarrek be bai, eta Izartu Zamudio taldetik be antzeko balorazioa egin dabe Maiatzaren 6aren ganean. "He-

rritarren % 24, 04k hartu dau parte herri galdeketa eta hori portzentaje ikusgarria da, gure ustez. Dana dala, portzentajeetatik harago, benetako garrantzia parte-hartzeari berari emoten deusagu, bizi izan dogun esperientziari, herriko eragile ezbardinakaz landutako hartu-emonari, eta Zamudion egon diran giroari eta alkarlanari". Era berean, egun osoan zehar egon zan giroa azpimarratu dabe, eta herritarrengan nabariak ziran poztasuna eta ilusinoa.

"Orain buru-belarri gabilz ekainaren 10eko giza kateari begira", esan deuskue Zamudiotik. Izan be, eta Eman eskua etorkizunari goiburupuan, Gure Esku Dago dinamika Donostia, Bilbo eta Gasteiz batuko dauzan giza katea egitera deitu dau egun horretarako. Guztira, ia 202 kilometroko giza katea osatuko da. "Lezamarrek eta zamudioztarrok kilometro bat osatu behar dogu Erletxetan, 105. kilometroa hain zuzen, eta han 500 lagun batzea lortu behar dogu. Giza kateagaz bat egiteko gonbitea bota gura deutsegu herritarrei, eta haren inguruan egongo diran ekitaldietan parte hartzera animatu". Larrabetzuk be bere kilometroa eukiko dau giza katean; 106. kilometroa. Derioztarrak, sondikoztarrak eta loiztarrak 107. kilometroan egongo dira.



Txartel bakarra; benetako integrazioa

Txorierritik metroaren 1. eta 2. lineaetara aldatzeak beste bidaia bat ordaindu behar izatea dakar, eta L3 Txorierrri Plataformak diskriminazio hori deuseztatzea du helburu nagusizat. Plataformak Txartel Bakarra foroaren aldarrikapenekin egin du bat, eta herri ekimena aurkeztu zuten Derioko Kultur Birikan, Lezama Bizirik eta TxoriBerri elkar-teen eskutik.

t: Itxaso Marina / a: Jon Goikouria Larrabeiti

“Egia da Txartel Bakarra foroaren helburua gurea baino nagusiagoa dela, baina gurea ere euren aldarrikapenen artean sar daitezke eta horregatik egin dugu bat haiekin”, azaldu digute Mari Carmen Alvarezek eta Marisa de la Partek. Emakumeak L3 Txorierrri Plataformaren kideak dira. “Txartel bakarraren aldeko foroa da eta Bizkaian garraio-sistema publiko bateratuta egotea nahi dute. Guk gure helburu nagusiarekin jarraituko dugun arren, prest gaude euren aldarrikapenak ere bultzatzeko. Horren haritik, trenetik metrorra aldatzeak dakarren beste bidaia hori ordaindu behar izatea kentzea lortzen badugu, pauso txiki bat izan daiteke txartel bakarraren biderantz”.

Txartel Bakarra foroaren barruan hainbat elkarte daude: Bilboko Auzo Elkar-teen Federazioak, Lezama Bizirik, Euskal Herriko sindikatuak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, batzuk aipatzearen. Euren manifestuan adierazi duten moduan, garraio publikoa funtsezko elementua da hiri eta udalerrien funtzionamendu egokirako, eta herritar guztien mugikortasuna bermatu behar du. Ekitate soziala ere garantizatu behar du eta elkartasun

irizpideetan oinarritu behar da. Garraio publikoa pribatua baino lau bider da merkeagoa eta mugikortasun iraunkorraren funtsezko zutabea ere bada. Era berean, manifestu horretan salatu dute erakundeek mugikortasun politikak ikusmirarik eta etorkizun ikuspegirik gabe ezarri dituztela, garraio pribatuaren erabilera sustatuz eta bide-azpiegitura handiak eraikiz. Gainera, garraio politika publikoak plangintzarik gabe garatzen direla aipatu dute, eta sarritan sumatzen dutela erabakiak unean-unean hartzen direla, edo hauteskunde-interesek eraginda.

Aurretik esandakoa kontuan hartuta, proposamen hauek egin dituzte Bizkaiko garraio publikoari lotutako politika eta jardueren oinarri moduan: ibilbide bera, tarifa bera, berdin da zein garraibide erabiltzen den; garraio publikoa zenbat eta



gehiago erabili, txartela hainbat eta merkeagoa; txartelaren prezioa pertsonaren errentaren arabera izatea; zerbitzu publiko eta kalitatezkoa bermatzea; erakunde bakarra egotea garraio publikoaren operadore guztiak koordinatzeko; eta txartela Bizkaia osoan erabilgarria izatea.

Diskriminazio handia

“Txorierrrik diskriminazio handia jasotzen du gaur egun, garraio publiko arloan”, adierazi dute forotik. “Izan ere,

*Txartel Bakarrak,
besteak beste, doako
garraio-aldaketak
proposatzen ditu eta
tarifa bateratuak*





*“Herritarrak lotzea
eta euren beharrezane
erantzuna ematea
inportantea dela
sentitzen duen
jendea falta da”*

topatzeko, plataformako kideek 3.000 sinadura baino gehiago batu dituzte, Txorierriko Udaletara jo dute, Arartekoa-rengana, eta bilera bi eduki dituzte Bizkaiko Garraio Partzuergoko ordezkariekin. “Aholkularitza-enpresa batera bidali gaituzte Garraio Partzuergotik, euren esanetan, enpresa horrek bidaiarien kexak-eta jasotzeko ardura duelako”. Plataformako kideek aipatutakoaren arabera, Bizkaiko Garraioaren Mapa osatu behar da datozen hilabeteetarako. Beraz, borondatea izanez gero, oraindik aukera legoke euren aldarrikapenak kontuan hartu eta erantzuna emateko.

Edonola ere, euren borrokarekin jarraituko dute eta datozen egunotan erabakiko dute zein izango den hurrengo pausua. “Errekaldekoek, auzokideen presioari esker, lortu dute metroaren 4. linearen lanak aurreratzea. Argi dago presioak bere fruitua eduki dezakeela”. Eta argi daukate ere garraio publikoa, kalitatezkoa, eraginkorra eta bidezkoa nahi dutela Txorierriko. “Metroaren 3. linearen arazoaz gainera, egunero 15.000 langile datoz Parke Teknologikora, Euskal Herriko Unibertsitatea ere hor dago, aireportua... eta oso garraio kaskarra daukagu. Benetako garraio publiko eraginkorra nahi dugu. Borondate politikoa falta da; herritarrak lotzea eta euren beharrezane erantzuna ematea inportantea dela sentitzen duen jendea falta da”.

metroaren 3. linea Euskotreneko 3. linea bihurtzen da Matiko pasatu bezain laster. Horrek eragin negatiboa dauka trenak Sondikatik Lezamaraino eskaintzen duen zerbitzuan. Txartel Bakarra konponbide egokia izango litzateke txorierritarrentzat zein Bizkaiko gainontzeko eskualdeetako herritarrentzat, besteak beste, doako garraio-aldaketak proposatzen dituelako, tarifa bateratuak eta prezio berea udalerribatetik bestera joateko, erabiltzen den garraioa kontuan hartu barik”.

L3 Txorierri Plataformatik gogora ekarri diguten moduan, Artxandako tunel berria zultzeko lanak hasi zirenean, 2015eko udal eta foru hauteskundeetako aurre-kanpainaren sasoian, Txorierri metro-sarean integratuko zela agindu zuten. “Baina, tunel berria martxan jarrita, metroaren 1. eta 2. lineaetara aldatzea lehenengo lekuan eta baldintza berberetan egiten da, eta bigarren bidaia bat ordainduta.

Bigarren bidaia hori txorierritarrok baino ez dugu ordaintzen, 3. lineako Bilboko erabiltzaileei eta Kukullagakoei bidaia bakarra kobratzen zaielako, beste lineae-tara aldatzen badira ere. Txorierritarreganako diskriminazio onartezina da, eta hauteskunde-konpromiso baten urraketa lotsagabea”. Bestalde, plataformatik ere salatu dute, tarifen aldaketen ondorioz, Lezamatik Zazpi Kaleetara joateko erabiltzen duten bidaia-bonoa asko garestitu dela, eta bidai 50 edo bidai 70 bezalako bonoak hartzen badituzte, zenbakiak oso ondo egin behar dituztela dirua ez galtzeko, “bono horiek iraungipen-data daukatelako”. Era berean, bidaiarientzat onuragarrienak ziren bonoak desagertu direla esan digute.

Borrokarekin jarraitu

Euren aldarrikapenak ezagutzera emateko eta gogobeteko konponbidea

Familia osorako
kolofatezko areto,
Zure esku

Zaindu Bonaia
Logopedia
Podologia
Gimnasia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txartel elektronikoa, B. Lopek | Aragoi 48160 50160
94 454 01 01 | 952 79 54 45
www.zainduz.com | www.dentalzainduz.com

t o k
t a k

EGUNEKO MENUA
lehengorik platera
bigarren platera
postre
igara
9€

Bestorene 5, Behaia 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

"Tabernako taldea gara"

t/a: Gaizka Eguzkitza

Martín Blancok, Mario Frailek eta Jon Paul Acevesek osatzen dute gaur egun Mamagigi's taldea. Lezamako eta Loiuako lagun taldeak duela urte bi sortu zuen musika taldea. Hasiera batean, Guillermo Pena ere bazen taldekidea, baina orain beste talde batean dabil. "Guillermo Dead Bronco taldera joan da. Izugarritzko aukera da berarentzat, beti musikari profesionala izan nahi izan duelako. Bai ze Dead Bronco Ameriketara joango da kontzertuak eskaintzera. Pena ematen digu, baina zer egingo dugu, ba... Guillermo ez dagoe-nez, guk hirurok jarraitzen dugu eta pozik gaude", azaldu digu Mariok.

Gazteok aspalditik jotzen dute elkarrekin. Mamagigi's sortu aurretik, Guillek, Mariok eta Martinek Kolapso, Zero Koma

MAMAGIGI'S TALDEA

Mamagigi's musika taldeak ibilbide laburra duen arren, gero eta arrakasta handiagoa dabil lortzen. Izan ere, ekai-nean Azkena Rock Festival jaialdian arituko dira, Euskal Herriko onenetarikoa, hain zuzen ere. Taldekideak poz-pozik dabilta, zelan ez, baina hainbat tabernatan emandako kontzertuak ere balioesten dituzte.

eta Barra Libre taldeak osatu zituzten. Garai hartan, punk eta ska jotzen zuten. Geroago, Jonpa batu zen eta handik gutxira estiloa erabat aldatzea erabaki zuten. "As-pertu egin ginen. Lau urte eman genituen punka egiten eta beste zeozer egin nahi izan genuen. Zergatik countrya? Ez dakit, *Oh brother!* eta Quentin Tarantinoren

filmen eraginez, countrya hasi ginen entzuten eta apur bat horrela, jolasten, sartu ginen estilo horretan".

Bilakaera izatea normala da, bai, baina 22 urterekin Euskal Herrian countrya jotzea ez da hain arrunta. "Ez dago gure musika mota egiten duen ia talde euskaldunik. Horrek alde onak eta txarrak ditu:

Taldekideak

Hasiera batean, lau ziren Mamagigi's taldeko partaideak, baina gaur egun, hiru baino ez daude, Guillermo Pena sondikoztarra Dead Bronco taldera joan da-eta.

Martin Bilbao (ahotsa eta gitarra): 21 urte, Larrondo. "Soinu goimailako gradua nabil ikasten. Nire anaiak gitarra erosi zuen, baina ez zuen inoiz erabili eta nik ekin nion musikari".

Mario Fraile (koruak eta baxua): 22 urte, Lezama. "14 urte nituela hasi nintzen baxua jotzen. Musikaz aparte, Zaharberritzea, Arte Ederretako adar bat, hori nabil ikasten".

Jon Paul Aceves (bateria eta koruak): 24 urte, Bilbo. "Familia lezamarra da eta txikitatik herrian eman ditut udak. Ziur asko, Lezamako udatiar bakarra naiz (kar, kar). Lezaman koadrila eta guzti daukat. Musika betidanik gustatu zait, etxe-koek ere tresnaren bat jotzen dute. Enpresa-ikasketak egiten ditut Sarrikon. "



batetik, jendea erabat harrituta geratzen da; bestetik, tamalez, ez gaituzte aintzat hartzen", azaldu digu Jonpak. Gazteei musika jotzea gustatzen zaie, besterik ez. "Nahi dugunean, jotzen dugu eta nahi ez dugunean, ez. Nahiko pozik gaude gure ibilbidearekin eta ondo pasatzen jarraitzen badugu, berdin-berdin jarraituko dugu", esan du Martinek.

Arrakasta

Dena dela, Mamagigi's taldea proiektu serioa bezain arrakastatsua da. Orain arte, maketa bat *–Mamagigi's–* eta disko bi *–Black Roses* eta *Psychobear–* kaleratu dituzte. Gainera, Villa de Bilbao Lehiaketan sari bat eman diote eta, ondorioz, Azkena Rock Festivalean joko dute ekainean, Gasteizen. Azkena Euskal Herriko jaialdirik jendetsuenetakoa da. "Oso pozik gaude, noski. Ez gara oso ezagunak eta guretzat aukera paregabea da. Lehen kontzertuetako bat izango da eta ziur asko jende asko ez da egongo, baina tira, 1.000 lagun

Taldeak maketa bat –Mamagigi's– eta disko bi –Black Roses eta Psychobear– kaleratu ditu

"Iaz 70 kontzertu baino gehiago eskaini genituen. Horrek eskarmentua ematen dizu"


edo batuko dira. Eta 1.000 lagun guretzat itzela da. Gainera, publiko horri benetan interesatzen zaio, talde berriak ikustea gustatzen zaiolako". Horrelako leku handietan jotzea oso deigarria da, baina taldekideek euren ibilbidea azpimarratu dute. "Iaz 70 kontzertu baino gehiago eskaini genituen. Horrek oihartzuna eta eskarmentua ekartzen dizkizu. Guk hainbat tabernatan aritu gara, tabernako taldea gara, hori da gure ezaugarri nagusia".

Eta tabernetan jotzea ez da batere erraza. "Normalean, ez dira leku egokiak musika zuzenean jotzeko: ez da behar be-

zala entzuten, barruan jotzen baduzu leku handiegia hartzen duzu... Eta egokiak diren taberna gutxi dago. Udan, behintzat, kanpoan jotzeko aukera dugu. Dena dela, ez gara gehiegi kexatzen, edozein egoeratarra moldatzen gara-eta".

Iaz, Mamagigi's taldeak Lezamako jaietan ere jo zuen. "Oso esperientzia polita izan zen. Kontzertua hasi baino lehen, Sakatu elektrotzaranga herrian zehar ibili zen jotzen eta azken txanpan gurekin batera ibili ziren. Oso polita izan zen. Normalean, musika taldeek ez dute herriko jaietan jotzea behar bezala aintzat hartzen, baina guri izugarri gustatzen zaigu: eszenatokia handia da; soinua, polita; jende askok ikusten zaitu...".

Alde egin baino lehen, gazteek taldearen izena azaldu digute. "Guillek Gigi's Banjo Sound taldean jotzen zuen beste lagun batekin. Geroago, Martin fitxatu zuten; eta gero, Mario". Beraz, Martin, Mario eta Guilleren lehenengo silabek Mamagigi sortzen dute. Azkenean, bateria jotzaileak taldea utzi behar izan zuen eta, bere ordezt, Jonpa etorri zen. "Jonpa apostrofea dela esaten dugu (kar, kar)".



t: Itxaso Marina

Hamar ekoizle dagoz Nekazamudio alkartean, eta Haizea Aretxabaleta eta Andoni Arrieta horreetako bi dira. Eta izen bereko azokearen sustatzaileak be badi-ra. Azaldu deuskuen moduan, azokearen helburua da alkartearen kideen lana eta produktuak ezagutzera emotea, baina ez hori bakarrik. "Produktuak herritarrei hurbildu gura deuseguz. Zamudioztarrei zein gainontzeko txorieritarrei. Hau da, herrian bertan erosteko aukerea emon gura deusegu. Zuzeneko salmentea ez ezik herriko ekonomia be bultzatzen dogu holan, eta harreman berezia sortzen da ekoizlearen eta eroslearen artean. Ondorioz, "arpegia" ipintzen deusie produktuari eta hori erabat onuragarria da eurentzat eta guretzat, guk beste inork baino hobeto azalduko deusegulako produktua zelan ekoiztu dan, edo zeintzuk diran bere ezaugarriak".

Izan be, etxean bertan erosteak, konfiantzako ekoizleari, horrek abantailak baino ez daukaz. "Lehenengo eta behin, kalidadea. Guk lehentasuna kalidadeari emoten deusegulako, eta ez ekoizpenari. Era berean, erosleak badaki hartutako produktua non, zelan eta zein lan-baldintzatan ekoiztu dan. Bestalde, freskotasuna. Gure produktuak gehienegun bi lehenago hartu dira, eta supermerkatuetan dagoz-nak luzaro egoten dira hotz-ganberetan. Produktu horreek, gainera, hainbat eskutatik pasatu dira eta gureak, oster, zuzenean doaz gugandik erosleengana". Eta garrantzitsua be badana: nekazaritza-merkatuari eta bertoko baserriarrei laguntzen jake.

Bakotxaren beharrianen eta produktua-uren eskuragarritasunaren arabera, Zamudioko Kultura Etxeko patioan zortzi ekoizle inguru batzen dira hileko lehenengo zapatuan, goizean. Ekoizle bakotxak bere postua dauka eta, besteak beste, produktu honek ipintzen dabez azokara hurbiltzen direnen eskura: ortuariak, marmelada, arrautzak, txakolina, barraskiloak,

Herriko produktuak herritarren eskura

Zamudioko ekoizle talde batek Nekazamudio azokea antolatzen dau hileko lehenengo zapatuan, Kultura Etxean. Azoka horretan, herrian ekoiztutako nekazaritza-produktuak ipintzen dabez ikusgai eta salgai. Baserritik mahaira, zuzen-zuzenean.



esnea, gaztaia eta garagardoa. Aitatu beharra dago produktuetariko batzuk ekologi-koak direla. "Eskaintza biribiltzeko asmoz, ogia-eta saltzen dauan Larrabetzuko ekoizle bat be badator, eta haragia ekoizten dauan derioztar bat be bai. Horreek Zamudio ez daukaguzan produktuak diralako". Azoketara beste arlo batzuetan dabilzan lagunak be gonbidatzen dabez. "Esate baterako, lorakaz eta sendabellarakaz lan egiten dabenak, kremak egiten dabezanak, pasta... Helburua azokea apur bat zabaltzea da eta bertara beste

mota batzuetako produktuak be ekartzea. Gainera, ekoizleek euren lanaren gaineko azalpentoak be emoten badabez, eragin-garri bat izan daiteke bisitariari begira. Aurreko azokan, adibidez, orioak dastatzea antolatu genduan eta oso interesgarria izan zan".

Ekainak 2

Nekazamudio alkartekoek ahalegina egiten dabe hilero, merkatuaz gainera, zamudioztarrei eta albo-herrietako bisitariari beste erakargarri batzuk eskaintzeko. Ho-

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Artsaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalera, 7
ZAMUDIO
94 455 90 06

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



*Azokak alkartearen
kideen produktuak
bultzatzea dau
helburu, eta horreek
herrian bertan erosteko
aukerea emotea*

*Besteak beste, ortuariak,
marmelada, arrautzak,
txakolina, barraskiloak,
esnea eta garagardoa
eskaintzen dira*

*Azokara beste arlo
batzuetan dabilzan
ekoizleak be
gonbidatzen dabez,
eta hilero erakargarri
bat antolatzen dabe*



lan, merkatuaren edizino bakotxean zer-
bait ezberdina antolatzen dabe. "Ardiak
mutiltzeko saioa antolatu dogu, ortu ber-
tikalak zelan egin, umeentzako tailerrak...
Jenteari gustatzen jakozan ekintzak dira.
Herriko bendejerei be egin geuntsen ome-
naldia, lehenengo sektorea bultzatzeko
egin daben lanagaitik. Bendejera batzuk
bizirik dagoz oraindino, eta hunkigarria
izan zan. Berbalditxo bota zan, dantzak
egon ziran...". Lehiaketak be egiten dabez.
"Bizkotxo lehiaketak, tomaterik onena au-
keratzea... Ekintza horreetan gura dauan

guztiak hartu leike parte. Gizon probak be
egin dira azokan, eta behin kalabaza handi
batek zenbat pisatzen eban asmatzea es-
katu geuntsen bisitariei. Hurren ibili zanak
eroan eban kalabazea etxera". Azokearen
hurrengo edizinoa ekainaren 2an izango
da eta aurreratu egin deuskue egun horre-
tan oilo-okelaren ekoizle bat egongo dala.

Nekazamudio azoka orain dala urte-
bete eta erdi antolatu eben lehenengo
aldiz, eta ordutik hona bezero leial batzuk,
hilero-hilero merkaturaino hurbiltzen dira-
nak, lortu dabezan arren, azokara herritar

gehiago erakartzea daukate helburu eta
gogo. Horretarako, ekintza batzuk zehaz-
tuko dabez datozen hileetan. "Zamudioz-
tarrak ez ezik txorieritar guztiak animatu
gura doguz gure azokea eta produktuak
ezagutera. Izan be, jentea azokara etor-
tzera animatzen bada, egitasmoa han-
diago egin ahalko geunke. Eta batek daki
hileko jai be bihurtu ahalko geunken!".
Bitartean, badakigu hileko lehenengo za-
patuan, goizean, hitzordua daukagula Za-
mudion, Nekazamudio azokan hain zuzen
be.



Albisteetako gezurra eta egia

Sudurra eta begia,
gezurra eta egia,
elkarren ondoan ia

t: Juan Luis Goikoetxea

Zergatik aldatu da hainbeste kazetaritza? Arrazoiatariko bat da informazioa eskuratzeko abiadura; berehala jasotzen baititugu edonongo berriak. Abiadurak, baina, ez digu ematen astirik gezurra eta egia bereizteko. Izan ere, notizia-gosea kontsumismoaren produktuatariko bat denez, albisteen zaparrada pean eta aterkirik barik bizi gara. Ondorioz, zelan jakin zein albiste den ekologikoa edo zein kutsatua?

Behar bada, *slow journalism*, kazetaritza geldoa landu beharko genuke, iker-tzeaz batera geure gaiak produzitzeko, mundura zabaltzeko; albisteen iturria gu geu izateko; egiak gezurretatik banatu ahal izateko, beti ere, ondo jakinik –noiz ulertuko ote dugu gai hau?– euskarak dituela egiten berriak euskal, eta erdarak erdal.

Euskaldun askok telebistako informatioak Madrileko kateetatik jarraitzen ditu, ze autobidez Madrilera 400 kilometro dauden arren, EITBren kateetatik TELE-5era joateko tele-manduko botoi bakarra sakatzeari nahiko da.



Bada gure artean esaten duenik TELE-5 horrek Euskadiko berriak ere eskaintzen dituela. Bai, hala da. Baina tentuz eta kontuz jokatu beharko da, egia eta gezurra elkarren ondoan baitira ia. TELE-5ek-eta egiten dutena da, Komunitate Autonomo bakoitzetik albisteren bat hartu –eta gu 17 autonomietatik bi baino ez gara–, os-tean, albiste bakan hori erabiltzeko Iberia-

ko zezenaren larrua josteko. Adibiderako, “Guggenheim turistaz beterik” albistea jostekilearen puntada da egunero zezenaren larrua josten aritzeko, autonomiek elkarren arteko loturari eusteko.

Euskaldunok postETA-garai honetan ikasi beharko genuke eraikitzen, orain arte legez josi ahala sarea urratu ez deza-gun.

Aresti
Harategia
Urdaitegia
Oiz. 1. Zamudio
94 452 00 06

Trinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pinboak - Plazer konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

**hotela
jaketxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

IRATXO
gaztegia
larta pertsonalizatuak
trufak
teinak
porditak
giletak

Medial Zarate 2 - 6. katea • Sindio, 48010 • 94 443 84 70

**ama
taberna**

Leizola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Urtean behin
Egin azterketa



Audifonoak

Digitalak

Moldatze-bermea

Doako azterketak

94 454 37 99



Probatu
konpromiso
barik

ÓPTICA
moderna
Audiología

Aizkorri 1 Derio



Patata, olagarro eta arrautza-krema

a: elcomidista.elpais.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 500 g patata egosi (azal barik eta dadotan ebagiak)
- 200 ml esnegain
- 150 ml ur (patatak egosteko erabili dugun ura)
- 60 ml oliba-orioa
- 250 g olagarro (egosia eta zatitua)
- 4 arrautza
- Gatza, piperbeltza eta piperrautsa

Prestetako errea:

Patatak egosteko erabili dugun uretara esnegaina, orioa, gatza eta piperbeltza botako dogu. Bestetik, patatak puregailutik pasauko doguz edo sardexkak lagunduta zapalduko doguz. Patata-purea aurretik egindako nahas-keteagaz nahasiko dogu, krema egiteko. Arrautzak galdarratzatuko doguz eta krema gainean ipiniko doguz, olagarroagaz batera. Piperrautsa botako dogu.



Etxeko sukaldaritza



Gatzatua

t: Maite Lekerika / a: gastronomiavasca.com

Osagaiak (zazpi gatzaturako):

- 7 buztinezko pote
- Litro bat ardi-esne
- Gatz apur bat
- Gatzagia

Prestetako errea:

Esnea epelduko dogu, 50-60 gradutan, eta gatz apur bat botako dogu. Pote baktexean bost tanta gatzagi botako doguz, eta segituan, esnea. Gatzatuak ordu laurden baten egongo dira eginda. Epel jan daiegun, edo hotz. Horretarako, poteak film gardenaz estali eta hozkailuan ordu pare bat euki-ko doguz.

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTROZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelavegite Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

ASADOR FUENTENEberria
"lar eta itsasoko haserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Oleia eta arraina
txangarretan errata

LEKUNBI-ARZOA 26
ZAMUDIO (Bizkaia)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak
topatu irudi bien artean.
Bukatzen duzunean, irudiak
margotu eta moztu ahal dituzu.
a: es.hellokids.com



Gomendioak



LITERATURA: NAGUSIAK

–Asedio al euskera - Más allá del libro negro (Txertoa), Joan Mari Torreal-dai.

–Azala erre (Elkar), Danele Sarriugarte.

–Zu entzuteko gaude (Elkar), Xabier Mendiguren.

LITERATURA: GAZTEAK

–Ongi etorri etxera, Kastore! (Ttarttalo), Magnus Weightman.

–Gregorio Katarrino (Elkar), Juan Kruz Igerabie, Eider Eibar (il.).

Sudokua

	2			3			
					7	5	
			8		1		
5		7	1	9	8		
			6				7
			5		8		
7	6	8			1		
9				7			
		1					2

2	7	9	6	5	8	1	3	4
1	8	4	9	7	3	2	5	6
5	6	3	1	4	2	8	9	7
6	4	9	8	7	3	5	9	1
7	1	5	4	2	9	6	8	3
9	3	2	8	6	1	7	4	5
3	2	1	5	8	9	4	7	6
8	5	7	2	9	4	3	6	1
4	6	9	3	1	7	2	5	8

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

RPA
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpamayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lopeste Plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

Hitzaldiak

Zamudio

- > Kolore guztietako basoak, Zamudion be bai? Ekainaren 7an, 19:30ean, Zamudiotorren. Zizegorri elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*. Ekainaren 21ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Larrabetzu

- > Erraldoiak dantzatzeko tailerra. Ekainaren 2an eta 3an. Informazio gehiago: bizkargidantzaelkartea.eus.

Zamudio

- > XIX. Euskal katen ikastaroa. Ekainaren 5ean, 12an eta 19an, 19:30ean, Zamudiotorren. Izena ematea: 94 452 34 47 eta lagatzu@lagatzu.org.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > *Erradikalak gara* bertso eta bakarrikzketak saioa. Ekainaren 1ean, 20:00etan, Baserri Antzokian.
- > Kukuke antzerki eskolaren ikasturte amaierako saioa. Ekainaren 5ean, 18:00etan, Baserri Antzokian.
- > *El caso de una mujer estupenda* antzezla. Ekainaren 9an eta 10ean, 19:00etan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Irteerak

Txorierrri

- > Bidegorriaren martxa. Ekainaren 2an, 11:00etan, Sondikatik eta Larrabetzutik.
- > Txorierrri bira. Ekainaren 2an, Berbalagun taldeak antolatua.

Zamudioko San Tomas jaiak

Ekainak 15, barikua

- 18:00 Bolandera danbadak.
- 20:00 Idi probak.
- 22:00 Sardina jana.
- 22:30 Erromeria: Nakar Barria.

Ekainak 16, zapatua

- 14:00 Euskal erromeria.
- 16:00 XXIX. mus-arin txapelketa.
- 17:30 Umeentzako jolasak.
- 18:00 Tortilla txapelketa.
- 21:00 Tortillak aurkeztea.
- 21:30 Antzerkia, Con alfileres taldearen eskutik.
- 22:00 Sariak banatzea.
- 23:00 Diskodantza.
- 24:30 Jolas dibertigarriak.
- Diskodantza.

Ekainak 17, domeka

- 09:00 Zamudioko bost ermiten XXIV. ibilbidea.
- Paella eta sukalki txapelketak.
- 13:00 Meza.
- 14:00 Kazolak aurkeztea.
- 18:00 Dantzen agerraldia, Hiru- Bat taldearekin.
- Sariak banatzea.
- 19:00 Gazta-harrapaketa txapelketa.
- 19:30 Erromeria: Trikiliku.

Ekainak 18, astelehena

- 12:00 Meza.

Sondika

- > Sondika - Sondika. Gorondagane guraso elkarteak eta Udalak antolatua. Ekainaren 24an, 10:00etan. Izena ematea: ekainaren 20ra arte liburutegian, eta egun berean.

Derio

- > Burdin mendiak. La Aceña - Muskiz. Ekainaren 3an, 09:00etan, frontoi atzean. Untza mendi taldeak eta Udalak antolatua.
- > Beriain - San Donato. Ekainaren 17an, 07:30ean, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Urbia. Ekainaren 9an, Arroeta mendi taldeak eta Elizalde guraso elkarteak antolatua. Izena ematea, ekainaren 7a baino lehen.
- > Basoko ibilbidea: hiru dimentsioko gomazko animaliak. Ekainaren 10ean, 09:00etan, Errege Bidean. Gezi-Bide elkartearen eskutik.

Lezama

- > Obarenes mendiak (Burgos). Ekainaren 2an, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Aizkorri-Aratz. Ekainaren 9an, 08:30ean, eskolan. Asteburuko irteera. Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Derio

- > Kurtso amaierako erakustaldia, Piperdun elkartearen eskutik. Ekainaren 3an, 17:30ean, frontoian.

Kirola

Derio

- > Gimnastika erritmikoaren erakustaldia. Ekainaren 19an, 18:00etan, kiroldegian. Miragarri taldearen eskutik.

Zamudio

- > Boxeo gaua. Ekainaren 2an, 19:30ean, kiroldegian. Boxeo taldeak antolatua.
- > San Pedroetako plater-tiroko saioa. Ekainaren 24an, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza elkarteak antolatua.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Mice. Ekainaren 17an, 18:30ean.
- > Musika eskolako ikasturte amaierako kontzertua. Ekainaren 21ean, 19:30ean, Andra Mari elizan.



Konekta zaitez gurekin!



 **Facebook:**
aikoraldizkaria

 **Twitter:**
@Aikortxori

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus




Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **WhatsApp:**
688 86 41 35

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

MOSAI

Taberna



- ✓ Gosariak
- ✓ Pintxoak
- ✓ Otartekoak
- ✓ Entsaladak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Hamburgesak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Eramateko janaria

GIN TONIC PREMIUMAK



Txantxangorri, 2
ZAMUDIO
94 471 83 41